

ERABAKITZEKO LAGUNTZA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Pertsona 18+ buru gaixotasuna > Laguntza etxean eta/edo bizitza autonomia izateko

Fitxa laburtua kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio osoa](#).

Norentzat

Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak, erabakiak hartzeko laguntza behar dutenak.

Kostua

Koordainketaren menpeko zerbitzua, ondare-egoeraren arabera.

Baldintzak

Laguntza behar izatea beren eskubideak baliatzeko eta beren erabakiak hartzeko.

Zertan datza?

Beren bizitzako eremuren batean edo gehiagotan erabakiak hartzeko laguntza behar duten pertsona helduei zuzendutako zerbitzua ([2.7.2.3 fitxa](#)). Kuradoretzaren eta gainerako laguntza-neurrien helburua gaitasun juridikoaren erabilera eraginkorra, garapen osoa, gizarteratzea eta bizikaltatearen hobekuntza erraztea da. Eredu berri horrek aurreko "tutoretza" horren orde, laguntza jarraituen sistema berri bat ezartzen du, non urritasuna edo mendekotasuna duen pertsonaren eskubideak, borondatea eta lehentasunak errespetatzen diren. Etengabeko laguntza eskaini nahi zaie hala behar duten pertsonari, ez bakarrik ondare arloko gaietan, baita bizitza arruntari eragiten dioten alderdi pertsonaletan ere (bizilekua, osasuna, komunikazioak, etab.). Laguntza neurriren baten ardura hartuko duten familiei ere aholkularitza eskaintzen die zerbitzuak.

Norentzat?

- **Desgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonak**, erabakiak hartzeko laguntza behar dutenak.
- Laguntza neurrien **ardura hartuko duten senideak** edo pertsonak.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Koordainketaren menpe dagoen zerbitzua, hau da, erabiltzaileak zerbitzuaren zati bat ordaintzen du bere ondare-egoeraren arabera.

Zer baldintza bete behar ditut eskatzeko?

18 urte edo gehiago izatea.

Norberaren eskubideak erabiltzeko eta/edo erabakiak hartzeko **laguntza behar izatea.**

Non eska dezaket zerbitzua?

Araba

Beroa Fundazioa

(gaixotasun mentala duten pertsonak)**Telefonia:** 945 214 363

Web: www.fundacionberoa.com

Usoa Fundazioa

(adimen-ezgaitasuna duten pertsonak)**Telefonia** 945 778 700

Email: usoa@fuso.org

Bizkaia

Gaikuntza

(lehen, Bizkaiko Tutoretza Erakundea)**Email:** gaikuntza@bizkaia.eus

Gipuzkoa

Gertuan Fundazioa

(desgaitasun intelektualak)**Telefonia:** 943 05 10 95

Email: gertuanfundazioa@gertuanfundazioa.eus

Web: www.gertuanfundazioa.eus/

Hurkoa Fundazioa

(desgaitasun intelektualak) **Telefonoa:** 943 468 956

Email: idazkari@hurkoa.eus

Web: www.hurkoa.eus

Informazio gehiago

Zure auzo, udalerri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan** ere informazioa eska dezakezu.

[Kontsultatu informazio osoa](#)